

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

184/2016 Foru Agindua, uztailaren 20koa, Ekorako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espedientearen behin betiko onarpena eteten duena

I. AURREKARIAK

Lehena. Ekorako Udalak, 2013ko urtarrilaren 28ko bilkuran, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egitea erabaki zuen. Hori, batetik, 2005eko azaroaren 11n behin betiko onartu ziren eta indarrean zeuden Arau Subsidiarioak berrikusteko; eta bestetik, udal planeamendua Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen preskripzioen arabera moldatzeko. Halaber, 2/2006 Legeko 90.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, adostu zuen Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei artikuluko horretan aipatzen diren txostenak eskatzea.

Bigarrena. 2013ko uztailaren 24ko bilkuran, Ekorako Udalak erabaki zuen Plan Orokorren Aurrerapenaren dokumentua jendarean jartzea. Horretarako, iragarkiak jarri zituen ALHAOn (89. zenbakia, 2013ko abuztuaren 7a) eta El Correo egunkarian (2013ko abuztuaren 7a), udalerrri mugakideetako udalak jakinaren gainean jarri zituen eta ediktu taulan iragarkia argitaratu zuen.

Iragarkia jendarean egon zen bitartean 17 iradokizun aurkeztu ziren. Idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen eta Udalak, 2014ko ekainaren 16ko bilkuran, Plan Orokorra idazteko oinarritzat hartuko ziren irizpideak eta helburuak ezarri zituen.

Hirugarrena. 2014ko urriaren 21eko bilkuran, Ekorako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorren dokumentuaren hasierako onarpena ematea eta jendarean jartzea erabaki zuen. Horretarako, iragarkiak jarri zituen ALHAOn (124. zenbakia, 2014ko urriaren 31) eta El Correo egunkarian (2014ko azaroaren 1a), eskumen sektorialak dituzten herri-administrazioak jakinaren gainean jarri zituen eta ediktu taulan iragarkia argitaratu zuen.

Laugarrena. Iragarkia jendarean egon zen bitartean 7 iradokizun aurkeztu ziren. Idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen eta Udalak, 2015eko urtarrilaren 21eko bilkuran, lau alegazio onartu eta gainerako hirurak gaitzetsi zituen.

Bosgarrena. 2015eko azaroaren 24ko bilkuran, Ekorako Udalak espedientea behin-behinean onartzea erabaki zuen, eta agindu zuen, halaber, espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea eta ingurumen txosteneko erabakiak integratzea.

Seigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedientearen txostena egin zuen martxoaren 16ko 1/2016 bilkuran, eta horren gainean emandako ziurtagirian jaso ziren baldintzak ezarri zituen. Horrez gain, adierazi zuen espedientea ez zitzaizola berriro batzordeari aurkeztu beharko. Gainera, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, Etxebizitza Sailburuordetzak, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak, Uraren Euskal Agentziak (URA) eta Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak egin-dako txostenak erantsi zituen.

Zazpigarrena. Hiri Antolamendurako Plan Orokorrekin batera, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedura bideratu zen. Hala, dokumentu hori 2013ko urriaren 11n egin zen, eta ingurumen txostena 2015eko azaroaren 3an.

Zortzigarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2016ko apirilaren 22ko sarrera data duen idazki baten bidez, Ekorako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearen espedientea bidali zuen behin betiko onar zedin.

Bederatzigarrena. Orobat, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko, Arabako Hirigintza Batzordeak espedientearen txostena egin zuen ekainaren 20ko 3/2016 bilkuran.

II. OINARRIAK

Lehenena. Ekorako udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearen dokumentuak berrikusten ditu, batetik, indarrean dauden Planeamenduko Arau Subsidiarioak, azaroaren 11ko 952/2005 Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartutakoak; eta bestetik, orain arte bideratutako aldaketa puntual bakarra eta bi garapen planeamendu, zehazki, Lurzoru Urbanizagarria-2 Plan Partziala eta Lurzoru Urbanizaezinaren Plan Berezi bat.

Bigarrena. Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagokionez:

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak (EAELAB), martxoaren 16ko 1/2016 bilkuran, hainbat gairen inguruko erabakiak hartu zituen eta HAPO honen aldeko txostena egin zuen, salbu "etxebizitzarako eta jarduera ekonomikoetarako kokaguneak" ataleko alderdi batzuenak. Alde horretatik, hartutako erabakien ziurtagirien arabera bete behar diren xedapenak dokumentu osagarri batean daude azalduta. Dokumentu horretan jaso dira eskatutakoa betetze aldera Ekorako HAPOn egindako aldaketa eta zuzenketak, eta aldaketa eta zuzenketa horiek Plan Orokorreko hirigintzako araudian sartu behar dira.

Hirugarrena. Lurzoru urbanizaezinari dagokionez:

Dokumentuan Arabako Hirigintza Planeamendua Normalizatzeko Sisteman lurzoru urbanizaezinaren banaketan ezarritako eremuak hartu dira aintzat. Dena den, dokumentua aztertu ondoren, funtsezkoak ez diren konpondu beharreko gai batzuk antzeman dira, atal hauetan:

1. J.1.5 eremuaren izena aldatuko da, dagoeneko ez da izango "Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala bereziki babestekoa", baizik eta "Nekazaritza eta abeltzaintza balioagatik bereziki babestekoa". Hori, hirigintzako arauetako 1.3.2.1 artikuluan zehaztutako sailkapen orokorraren sistematizazioarekin bat egite aldera.

2. Abeltzaintzako erabilera baimendua duten eremuek (J.1.5 "Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala bereziki babestekoa" eta J.2.5 "Nekazaritza eta abeltzaintza interesagatik babestekoa") ez dute bete behar Guardiako Eremu Funtzionalaren LPPko (Arabako Errioxa) 34 eta 34 bis artikuluetan ezarritakoa, ez zaielako aplikatu behar.

3. Hirigintzako araudiko 1.3.1.21 artikuluko c.1) Nekazaritza.ii atalean landa-erabileraren inguruan dagoen inkongruentziarik eza konponduko da. Izan ere, enuntziatuan upeltegiak salbuesten dira berariaz eta, gero, jarduera zehatzak definitzen direnean, sartu egiten dira.

4. Testu normatiboan "dauden eraikinak" zer diren argituko da, eta era horretako eraikintzat hartuko dira "legezkoak direnak edo diziplina ekintzarik behar ez dutenak". Gainera, aurreko erreferentzia hori aipatzen duten hirigintzako parametroak ez daude behar bezala idatzita eta zuzendu egin behar dira.

5. Hirigintzako arauetako 1.7.2.4 artikuluan upeltegietarako ezartzen diren parametroei dagokienez ("LPP indarrean jarri aurretik bazeuden upeltegiak"), Guardiako LPPn horretaz zehazten diren kasuak sartu behar dira testuan. Hala ere, Guardiako LPPko araudiarekin desadostasunik gerta ez dadin, hirigintzako parametroetarako hura aintzat hartzea gomendatzen da, eta Plan Orokorrean LPPn agertzen ez diren gaiak bakarrik lantzea.

6. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiei lotutako beste eraikin batzuk direla eta (HA-POko 1.7.2.4.2 artikulua), "lehendik dauden eraikinetan" eraikitako azalera ehuneko 25 gehitzea ezartzen da (gehienez); bada, eraikitako azalera mugatu behar da eta ezarri ezin dela izan eraikin berrietarako ezarritako gehieneko balioa baino gehiago, haiekiko lehentasun traturik egon ez dadin.

7. Landa jarduera batzuk ezartzeko (esaterako, abeltzaintza eta basogintzako erabilerak) plan berezia idatzi beharko da.

8. Berotegi, mintegi eta antzeko eraikinetako hirigintzako eta eraikintzako parametroetan gutxienez eraikinaren profila sartu behar da, hirigintzako eraikigarritasuna mugagabea izan ez dadin. Beste alde batetik, jarduera horien epigrafean ("berotegiak, mintegiak eta abar") berari lotutako jardueren zerrenda tasatua agertu behar da, aurreikusi gabeko instalaziorik eta nahi ez den instalaziorik egon ez dadin.

9. Basogintzako berariazko eraikuntza erabilerak egiten diren lurzatiren batean baimendutako hirigintzako eraikigarritasuna gainditzen bada, arrazoia azaldu behar da.

10. Uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuaren eta 2012ko ekainaren 25eko Aginduaren aipamenak ezabatu eta indarrean dagoen araudia aipatu behar da.

11. NLU/Ha erlazioa zehaztu gabe dagoen abeltzaintzako ustategietako gutxieneko lurzatiaren azalera nola kalkulatu den azaldu behar da.

12. 1.7.2.9 artikuluan ("Nekazaritzako ustategi bati lotuta ez dagoen etxebizitza erabileraren hirigintzako eta eraikuntzako parametroak") ez da koherentea baldintza hau ezartzea: "d) Nekazaritzako edota abeltzaintzako eraikinak etxebizitzatik bereizita egon behar dira edo, bestela, etxebizitzaren eta halako eraikinen artean beheko solairutik gailurrerainoko horma bertikala egon behar da"; beraz, baldintza ezabatu behar da.

Laugarrena. Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria:

Dokumentuan proposatzen da bere horretan mantentzea indarreko antolamenduan etxebizitzetarako ezartzen diren lurzoruak, lurzoruaren sailkapenean doikuntza batzuk eginda, eta herrigunearen hego-ekialdean bi sektore sortzea (YE.07, YE.08).

Jarduera ekonomikoetara etorruta, egun kalifikatutako lurzoruak gainezkatuta daudela kontuan hartuta, dokumentuan proposatzen da herrigunearen iparrean dauden pabiloiak burutzea eta hiri lurzoru finkatuko esparru batean sartzea (YE.02). Esparru horren ondoan proposatzen da lurzoruaren erreserbatzea jarduera ekonomikoetarako, seguruenik ere lehen sektoreko jardueretarako eta upeltegietarako: 6.188,70 m² (YE.05).

Dokumentua aztertu da eta zuzendu beharreko funtsezko akats hauek aurkitu dira:

1. Hiri lurzoruko birsailkapen berriak direla eta:

— 1383-1 lurzatia hiri lurzorukoa izango bada, ezinbestekoa da ibilgailuentzako sarbidea edukitzea, zolaztatua eta erabilera publikokoa, hain zuzen; arazo hau konpontzeko moduetako bat 1-1036 lurzatiari atxikitzea da.

— 1138, 1139-1, 1141-1 eta 1142-1 finkak ezin dira sailkatu finkatutako hiri lurzorukotzat, ez baitauzkate LHLko 11.1.a artikuluan lurzoruak halakotzat jotzeko ezartzen diren gutxieneko zuzkidura guztiak; beraz, finka horiek udalerriko hiri lurzoruaren sartu nahi badira, urbanizagarri modura sailkatu behar dira.

2. Grafikoei dagokienez, hiri lurzorukotzat sailkatutako lurrak ondoko kategoria hauetako batean sartu behar dira: finkatua edo finkatu gabea. Lurzoruaren finkatu gabe badago, arrazoia argitu behar da: berrikuntzako urbanizazioa behar izatea edo proposatzen den antolamendu berrian ezarritako hirigintzako eraikigarritasun haztatua aurrekoa baino handiagoa izatea.

3. Ondoko lurzoruaren kategorizazioa zuzendu behar da: urbanizazioa finkatu gabe egon arren, ez dauzkalako hirigintzako antolamenduak eskatzen dituen zuzkidurak eta zerbitzuak (LHLko 11.1.a artikuluan aipatze direnak), hiri lurzoru finkatu modura sailkatuta daudenak.

Halako lurzoruak dira Arabako Foru Aldundiaren etorbidearen ondoan dauden lurzati gehienak, batez ere etorbidearen mendebaldean daudenak (urbanizazio eta finkatze maila baxukoak dira, San Bartolomé kalekoak eta Larrabide kalearen hasierakoak izan ezik) eta herrigunearen

ekialdean dauden baratzeak (La Fuente kalearen mugakide direnak). Zehatzago adierazita: 253-2, 252-2 eta 249-2 lurzatiak eta beren sarbidea, AD03 (1072-1 eta 1285-1 lurzatiak eta bideak), AD13, 1136-1 lurzatia, AD04 eta AD05 eta, oro har, orubetzat hartzeko bide publikoko fatxada aurpegia zolaztatu, sare berriak egin eta, ezinbestean, azpiegiturak lurperatu behar diren lurrak, urbanizazio kostua lizentzian baimendutako eraikuntza burutzeko aurrekontuaren ehuneko 5 baino gehiago izango litzatekeela eta.

4. Finkatutako hiri lurzoruko esparru batzuetan hirigintzako eraikigarritasun haztatua aurrekoa baino handiagoa da. Esparru hauek finkatu gabeko hiri lurzorutzat jo beharko dira (LHL, 1. Xedapen iragankorra), ondoko hauek, hain zuzen: "industria arrunteko d. azpizonetako eraikinei eta erabilerei buruzko ordenantza orokorra" aplikatzen zaienak eta "hirigune zaharretako a.1 azpizonetako eraikinei eta erabilerei buruzko ordenantza orokorra" aplikatzen zaienak (lehen SUI.1en ordenantza), "aldirietako hiriguneetako a.2 azpizonetako eraikinei eta erabilerei buruzko ordenantza orokorra" aplikatzen zaienak (lehen SUR.3 eta SUR.5ekoa; SUR.2ekoa aplikatzen zaienetan argitu behar da hirigintzako eraikigarritasun haztatua gehitu den ala ez) eta 1063-2 lurzatia, "c azpizonetako, hirugarren sektoreko azpizonetako eta gizarte ekipamendu pribatuko eraikinei eta erabilerei buruzko ordenantza orokorra" (lehen SUR.4ekoa) aplikatzen zaiona.

5. Udalak "zuzkidura publikoak egiteko jarduketatzat" (LHL, 139. artikulua) hartuko ditu bideei lotutako lurretan egiten direnak, hots, finkatutako hiri lurzorutzat jo eta jarduketa integratuetan sartuta ez daudenetan, baldin eta lurrok desjabetzearen bidez eskuratzen badira. Hori bera agertu beharko da ekonomia eta finantzako bideragarritasunari buruzko azterlanean eta jasangarritasun ekonomikoaren memorian. Gainera, urbanizazioaren bidez finkatutako hiri lurzoruko antolamendu xehatuko eremuen fitxetan kasuistika hori azaldu behar da.

6. Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, ezartzen duena aplikatu behar da hiri garapen berrietan, berrikuspenean erabilera etxebizitzatik industriara aldatzea proposatzen den eremu akustikoetan eta trantsizio akustikoko eremuetan, besteak beste.

Beste alde batetik, funtsezkoak ez diren gorabehera hauek ere zuzendu behar dira:

7. Baimena ematen da lurzati batzuetan (esaterako, 115-2) gehienez eraiki daitekeen sakonera handitzeko, baina hori ez da zentzuzkoa, zeren lurzati horretan toki babesa daukan eraikina dago eta horrelakoetan ezin da aplikatu gehikuntza hori.

8. Aurreko eraikinen araubidea dela eta, grafikoetan eta antolamendu xehatuko eremuen fitxetan honako hauek agertu behar dira: antolamenduarekin bat ez datozen eraikin eta eraikuntzei buruz HAPOko arauetako 1.4.6.3 artikuluan ezartzen diren zehaztapenak eta kasu bereziak; besteak beste, kontuan hartu behar dira lurzatietakoa patioen edota etxadietako patioen konfigurazio berriari atxikitako eraikuntzak.

9. Antolamendutik kanpokotzat jotzen diren eraikinetako bat desjabetu behar izanez gero, eragiketa horren ebaluazio ekonomikoa egin behar da eta aurreko puntuan aipatzen diren dokumentuetan ezarri.

10. Bideak direla eta, udalerriko hiri lurzoruaren mugak zehaztu behar dira kasu jakin batzuetan: hirikotzat jo eta urbanizatu ondoren konfigurazio formala dela eta erabili ezin diren esparruak.

11. Kontuan harturik zuzkidura jarduketak, egin, urbanizazioak finkatutako eta haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzoruaren egiten direla, berriro aztertu behar dira aurrean aipatutako baldintzak betetzen ez dituztenak.

Zuzkidura jarduketak banaka aplikatuko dira lurzatietan eta orubeetan (HED, 2. artikulua); beraz, berriz zehaztu behar dira AD01, AD02 eta AD12, jarduketa bakarrak izan behar dira eta (urbanizazio graduak uzten badu), lurzatiak biltzea ezinbestekoa baita gutxienezko lurzatiaren ordenantza grafikoan ezarritako baldintzak betetzeko.

Hala ere, AD12ri buruz esan behar da iradokizunen txosteneko alegazio batean idazkuntza taldeak finkatu gabeko hiri lurzorukotzat jotzen duela eremu hori. Hori dela eta, hiri lurzoru horren kategoria aldatzeko aplikatu den irizpidea azaldu behar da.

12. AA04an ez dira betetzen antolamendua jarduketa bakar baten bidez gauzatzeko ezinbestekoak diren gutxieneko baldintzak (LHL, 136. artikulua; PND, 40.2 artikulua); izan ere, ez da jarduten lurzati bakar batean eta lurzatiak ez dira batu gutxieneko lurzatiaren baldintzak betetzeko. Gainera, oraingo konfigurazioan, zuzkiduretarako lurzati pribatu batean zehar sartzen da; beraz, finkatu gabeko hiri lurzoruak da eta lurzatiak berriro zatitu behar dira, eremuaren hirigintza egoera arautzeko eta legeztatzeko.

13. Araudian ezarri behar da zer egingo den toki sistemen gutxieneko estandarrak betetzeko, finkatu gabeko hiri lurzoruko jarduketa integratuen eta eraikigarritasunaren gehikuntzaren zuzkiduraren ondorioz, hiri lurzoruak ebazpen honetako zuzenketak eginda kategorizatu ondoren.

14. Nuestra Señora de Estíbaliz kalea eta YE.06 sektorea lotuko dituen bidea zuzendu behar da, oinezkoen joan-etorriak eragozten edo murrizten dituen estugunerik egon ez dadin.

15. Azaldu behar da zer egingo den babesaren ondorioz "lotura berezia" duten eraikinetan.

16. Aurkeztutako araudia aldatu behar da, zeren hirigune zaharren ordenantza aplikatzen zaien eraikuntza guztietan ez baita eraikiko solairu kopuru bera. Beraz, hirigintzako eraikigarritasuna ez da denetan bera, eta hala behar du.

17. Instalazioen planoak eguneratu behar dira, gutxienez ere "La Fuente" kalearen urbanizazioa islatu behar da eta.

18. HAPOn antolamendu xehatua ezartzen zaien eremuetan abenduaren 4ko 20/1997 Legea, Irigarritasuna sustatzen duena, eta beraren garapenerako 68/2000 Dekretua betetzen direla frogatu behar da.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak xedatzen duena dela eta, funtsezko aldaketa hauek egin behar dira:

1. Antolamendu xehatuaren planoetan, Arabako Errepideei buruzko Plan Integralean (AEPI) eskualde errepideetarako finkatu gabeko hiri lurzoruari ezarritako zonak agertu behar dira: errepidearen mendebaldeko lurzati gehienak eta errepidearen ekialdeko hiri lurzoruko lurzatiak. Finkatutako hiri lurzoruari (gehiena errepidearen ekialdean dago), aurreko planean errepideen sistema orokorrak, galtzadak, eta drainatzeko elementuez ezarritakoa bete behar da. Zona berdea salbuetsita dago.

2. A-2126 errepidearen eta Lantziegoko bidearen arteko bidegurutzea zuzendu behar da, erradiora 8 metrokoa izan behar baita gutxienez. Horrez gainera, kaleko lerrokadura eta errepideari lotutako bide sarea zehaztu behar dira. Bidegurutzea zehazteko, ezinbestekoa da antolamendutik kanpo uztea errepidearen eta kalearen artean dagoen eraikina, osorik, indarreko arau subsidiarioetan ezartzen den bezala, ez bakarrik aztertzen ari garen HAPOn proposatzen den zatia.

3. AEPIko sekzioetan adierazten diren lerrokadurak zuzen zehazteko eta A-2126 errepidearen bi aldeetan, Ekorako tartean, oinezkoen bidea egiteko, aurreko paragrafoan aipatzen den eraikina eta HAPOn proposatzen direnak ez ezik, ondoko hauek ere antolamendutik kanpo utzi behar dira: 1042 orubean dagoen eraikin bat, A-2126 errepidearen ondoko eraikina, San Sebastian kalearen eta A-2126 errepidearen arteko bidegurutzean dagoen etxebizitzari atxikita dagoena, eta errepidearen mendebaldeko ertzean dagoen eraikina (Aldundiaren etorbidea, 9).

Funtsezkoak ez diren aldaketa hauek ere egin behar dira:

4. A-2126 errepidea nekazaritzako komunikazioetatik (nekazari bideak) bereizi behar da.

5. Planoetan AEPIko sekzioa, lehen aipatu dena, islatu behar da.

Seigarrena. Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuak egindako txostenak dio ingurumen memorian ezartzen diren zehaztapenak ondo txertatu direla HAPOn. Hala ere, 1. poligonoko 47. lurzatiari "Basogintzako interesagatik babestutako zona" kalifikazioa kendu eta "Nekazaritza-abeltzaintza interesagatik babestutako zona" kategoria ezartzea dela eta, horren alde egiteko ezinbestekoa da ingurumena hobetzeko eta suspertzeko konpentsazio neurrien proiektua aurkeztea, ukitutakoaren azalera bera (3.900 m²) edo handiagoa daukan Ekorako eremu narriatu batean aplikatzeko. Proiektu horretan zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak landatu beharra ezarri behar da (baldintza hau ez da funtsezkoa).

Zazpigarrena. Aurreko ataletan aipatzen diren zuzenketak euskarri informatikoan aurkeztu behar dira; dokumentu teknikoa zuzenduta aurkeztu behar da, fitxategi editagarrietan zein editaezinetan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekorako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientearen behin betiko onarpena etetea harik eta ebazpen honen oinarrietan azaltzen diren zehaztapenak, funtsezkoak zein bestelakoak, aldatu arte.

Bigarrena. Bete beharreko baldintza batzuk funtsezkoak direnez, Ekorako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren dokumentua informazio publikorako aurkeztu behar da Arabako Foru Aldundiari berriro aurkeztu baino lehen, behin betiko onartzea erabaki, betearazi beharra adierazi, izapideak egin eta argitaratzeko.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Gasteiz, 2016ko uztailaren 20a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO